


Langabezia tasa %10,0ra jaitsi zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan.

LANGABEZIA TASA

GUZTIRA

HIRUGARREN HIRUHILEKOA


%10,0




Langabezia tasa %10,0an kokatu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, Eustatek ezagutarazi duen zenbatespenaren arabera. Hori dela eta, zortzi hamarrenetan jaitsi da bigarren hiruhilekoko tasaren aldean, pandemiaren lehen olatuak indar osoz jo baitzuen hiruhileko horretan. Langabezia tasak behera egiteko arrazoiak hiruhilekoko enplegu sorrera eta pertsona aktiboen zati batek lan merkatua utzi izana dira.

Hain zuzen ere, aurtengo bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, 3.100 pertsona landun gehiago zeuden eta, aitzitik, 5.600 aktibo gutxiago. Beraz, langabeen kopurua 8.600 lagunetan jaitsi zen. Generoaren arabera, emakumeen langabezia tasa bi hamarren jaitsi zen, %10,4ra arte, eta gizonena, berriz, %9,6an kokatu zen. Hiruhilekoan sortu zen enpleguak gizonei bakarrik egin zien mesedea.

LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK




LANGABEZIA TASA GIZONAK




Adin taldeen araberako azterketak adierazten du gazteen langabezia tasak gora egiten jarraitzen duela eta orain %28,6ra iritsi dela, beste adin taldeen tasak baino askoz gorago. Izan ere, erdiko tarteak (25 eta 44 urte artekoak) %11,3ra hobetu du bere tasa, eta 45 urte eta gehiagoko taldeak langabezia tasa jaisteko joerari eutsi dio, eta %7,0ra iritsi da, azken urteetako baliorik txikiena baita.

Aldeak handiak dira langabeen nazionalitateari erreparatzen zaionean. Izan ere, espainiarren %8,2ren aldean, atzerritarren langabezia tasa %27,9 da.


LANGABEZIA TASA. 16 ETA 24 URTE BITARTEKOA




LANGABEZIA TASA. 25 ETA 44 URTE BITARTEKOA



LANGABEZIA TASA. 45 URTE ETA GEHIAGO



LANGABEZIA TASA. ESPANIARRAK



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK



Iturria: Eustat. (BJA)